



↑ Azucena Vieites. Artista eta Galería Fúcaresen kortesia.

## Azucena Vieites



Edozein arte praktikaren garapenean, itzulpenak zerikusia du gauzatze zehatzeko teknika batekin. Irudiak beren materialtasuna, nola dauden eginda, haietaz ateratzen dugun zentumen-esperientzia kontuan hartuta eraikitzen direla jabetzeko, ikasi egin behar dira haiek «gorpuzteko» erabilitako prozedurak.


Oraindik orain serigrafiara itzuli naiz marrazkiak teknika batetik beste batera pasatzeko. Serigrafiak beti harritzen nau, ahalmen hori du, eta garrantzitsua da egiten duzunak harritu zaitzala. Bat-batean irudi bat sortzean badago magiarik, badago harrigarrik. Gorputzak berak esku hartzen du horretan. Keinu baten bidez, ekintza baten bidez, doi-doi aldi berean, atzerapenik gabe, emaitza bat lortzen dugu. Ekintzaren hondarra lortzen da. Hondarra emaitza organiko gisa, eta horretan badago inplizitu doilorkeria ideia bat. Irudien gorpuztasunetik lan egite horretan kontua ez litzateke hainbeste izango serigrafiaz marrazkiak berregitean datzan prozesu bat dokumentatzea (dokumentu ideiak halako izaera birtual bat bereganatzen du), baizik eta hondar ideiak batzea, emaitza organiko doilor moduan, asimila ezin moduan.

Serigrafia teknika espezifikoak irudi bat behin eta berriz eta berriz lortzea ahalbidetzen du. Horrek hainbat kontu daramatza berekin, jatorrizko, kopia, lan bakar, seriatu edo erreproduzigarri ideiekin zerikusia dutenak. Sturtevant emakume artistak dioen bezala: «Errepikapena ez da errepikatzea». Errepikapen efektuan, irudikatutakoa barreiatu, indargabetu egiten da. Irudia efektu errepikakor horretatik abiatuta eraikitzen da. Zirrikituetan zerbait gertatzen da, irudikapena bera gainditu egiten duena, bakandu. Arte praktikaren izateko arrazoietako batek zerikusia du urruntzea eragiteko ahalmenarekin.

Prozesuak esentzialismoa kentzen dio irudi jatorrizko bakar bati, eta geure buruari galdetzera bultzatzen gaitu haren izaera naturalaz. Hura errepikatua, kopiatua, imitatua izateko gai izateak ekartzen du jatorrizko/kopia aurkako binarioak zalantzan jartzea eta orijinalaren izaera lehena eta kopiaren izaera eratorria ukatzea. Absurdoaren ideia bat txertatzera eramaten gaitu, irudi absolutuari eta narrazio molde linealei dagokienez.

Joan den apirilean nire lana erakustera gonbidatu ninduten Madrilin egin ziren *La copia, lo falso (y el original)* jardunaldien testuinguruan. Entzuleen arteko pertsona batek esan zidan teknika bat teknika ideiatik kanpo garatzeaz mintzatu nintzen heinean, paradoxikoa zela ikustea nire azken lanak hasierakoak baino hobekak zirela, hobeto eginda zeudela. Teknika bat haren absentziatik abiatuta garatzeak ahalbidetu egin dit hura gero eta hein handiagoan kontrolatzeko gai izatea, bidea ez galtzea sortuak diren itxaropen batzuen inguruan, aurretiko konbentzio baten inguruan. Teknikaren nondik norakoak ikasteak haren absentzia izan du abiapuntu, artistak dakienetik edo ez dakienetik abiatutako ez egite bat izan da, eta horrek egia ideia jakin bati erantzuten dio; horregatik funtzionatzen du azkenean, hobeto itzulita dagoela gertatzen da azken batean.





Jardunaldi haietan aipatu nuen behiala musika bikote bat ikusi nuela eszenatokira ateratzen; hasi da musika, ikusleen aurrean geratu dira, haiei tinko begira, ez dira ezein unetan hasi kantatzen, musikak iraun duen bitartean jarrera horretan jarraitu dute, kantatu gabe, begiradak tinko, ongi pasatzen. Zerbaiten hasiera ematen du, baina hasiera hori behar baino luzeago luzatzen den neurrian, nahasgarria suertatzen da. Beste kasu bat ere aipatu nuen, mahai inguru batera gonbidatu duten artista batena, oso gutxi hitz egiten duena, ia ezer ez. Muga batzuen barruan, badaki oso *performer* ari dela jokatzeko.

Bi kasuotan agerian geratzen da irudikatzen dutena edo irudikatzen ez dutena ustez izan beharko luketen edo egin beharko luketenari dagokionez: musika bikote batek, kantatu; artista hizlari batek, zerbait esan, ordainduko zaion denbora tarte hori okupatu. Biak inpostoreak irudi lezakete, aurretiko itxaropen batzuk ez betetzean, aurretiko konbentzio bati ez erantzutean. Nik izan nuen esperientzia, ordea, izan zen bai kasu batean bai bestean irudikatutakoak lehen aipatu dudana egia ideia horri erantzuten ziola. Erradikaltasun handiko ariketa da edukitzen ez saiatzea, espazio hutsak betetzen, haiek konbentziotik abiatuta eraikitzen, ez saiatzea. Ekimen horiek errepikapen efektu baten moduan gauzatzen dira, ez abestea, ez hitz egitea minutu bat, bi, hiru edo denbora gehiago. Edukitzen ez saiatze horren ahaleginean, emaitza bazterretan, mugetan gertatzen da, eta bazter horietatik gauditzen da irudikapena bera. Oso litekeena da beste itzulpen batek hutsegiteak besterik ez erakustea.

Nire lanean halako collage ideia bat garatuz joan naiz, paisaiatik, albo-alboan dudana ingurunetik abiatuta. Apropiazioa gehiago da baliabide bat helburu bat baino. Nire lanaren abiapuntuan dauden irudiek zerbait dute aurkitutako objektutik, eta emaitzak ere bai. Helburua halako oroimen estetiko-politiko bat irudikatzea da, denbora zehatz

bati eta igarotze horretatik guztitik pasatze esperientzia bati dagokiona: bizitasuna lausotuz doakion oroimen bat.

Besteak esaten edo egiten duena ulertzean datza itzulpena, enpatia prozesua da, eta nork bere burua ulergarri egitea, zauden lekua kokatzen saiatuta. Beste pertsona batzuen lana biltzeak nolabaiteko urrutiko harremana ahalbidetzen dizu, genealogia bat, konplizitate eta ezagutza molde bat.

Erabili izan ditudan zenbait izenburuk marrazkientzako edukitze-espazio bat sortu dute, mantendu egin dena hura agortu den arte.

*Juguemos a prisioneras, Los sueños de vidrio te engañarán, Get Your Laws Off My Body, No mires, Pirates on Parade, Sorgiña zara zu? Ezetz harrapatu!, ¿Quién es libre de elegir?, Remake of the Weekend, Jeux de Dames Cruelles, Dibujos del Natural, Som aquí, Results, Apuestas feministas, Práctica más fracaso, Straight Not, Arty, The Remix, New Feminism, My Body My Right, Alrededor del mundo, Apuntes para un arte de la resistencia, Un cambio de forma, Oye lo que traigo, Positivamente sucio.*

Musika entzuten dut lanean ari naizen bitartean. Erakusketa bat egin nuen *Oye lo que traigo* izenburukoa; errealtatean erakusketa hartara ez zinen joaten ezer entzutera, ez baitzegoen muskarik, haren inguruko erreferentziak besterik ez. Entzuten dudana musika *mainstream* irratietatik dator, hala nola Kiss FM. Paradoxikoa da, konbentzioetatik aldendu nahi dudana bitartean, lanean ari naizenean konbentzional esan geniezaiokeen leku batetik datorren musika entzutea. Herriaren opioa. Horren guztiaren halako nolakotasun sorgortzaile, hipnotiko bat erabiltzeak bidea ireki eta zer gertatzen den ikustea ahalbidetzen digu.

Joan den apirilaren lehen bi asteetan serigrafia tailer bat eman nuen Artelekun,

*Adierazpen erradikalak* izenekoa. Artista gonbidatu bat bere lanaz ari zen hizketan. Aurreko egunetan sortutako auzi asko planteatzen hasi zen. Nik oharrak idazten nituen, beste pertsona bat esaten ari dena biltzen duen idazkari baten modura. Aldi berean objektibotasunetik eta subjektibotasunetik. Objektibotasuna ez da existitzen, dena da subjektiboa. Nire lanaz objektibotasunetik hitz egiten amaitu dut arretagatik, egiaztatu dudalako nola itxaroten dion emakumeari subjektibotasunaren zera horrek, besoak zabalik, emetasunaren zaborra esaten diot nik. Buñuelek eta Dalík ariketa bat egiten omen zuten, ideia bati hiru minutu baino denbora gehiago ez ematea, horrelako zerbait. Hiru minutu pasatu ondoren, konbentzioa sartzen da atetik. Suposatzen dut geroago ariketa berrikusi egin daitekeela, betiere hasierako ideia hori, gordetzen duen etika posiblea, errespetatuta.

Soinuek aldarteak transmititzen dituzte, norbaitek esan zuen noizbait. Irudiek ere aldarteak transmititzen dituzte. Malenkonia irudien bitartez. Bizitasun mailak transmititu ahal izateko modu egokia da melodia. Maila horiek oso nabarmenak direnean, gehiegizko horrek berregokitzearen premia izan lezake.

Eman ditudan azken tailerretan –lehen aipatutako Artelekukoa, serigrafiaz, eta beste bat marrazkiaren inguruan, *Una aproximación al dibujo DIY* izenekoa, otsailaren azken astean Cuencako Arte Ederreko Fakultatean eman nuena–, parte-hartzaileek estimatu egin zuten ezer bukatu behar ez izatea, azken emaitzaren arabera artista hobe edo eskasagoa izateari lotutako konparazioen mendean ez egotea: askapen bat. Planteatu nuen proposamena ez zen horrenbeste prozesu bat burutzea marrazketaren edo serigrafiaren bidez, baizik eta areago prozesua hastea eta haren desbideratzeei erreparatzea. Ba hori. ♦



**FERIA:** Helena, Marta y Elisa., en una feria.